



atizabalik

PERU CALABAZA SABAN



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

PERU CALABAZA SABAN

Atizabalik

IKAZTEGIETA

Hau ez da rock banda baten historia, baina izan zitekeen, puntx hori dauka. Hasi zitekeen kontatzen, adibidez, Ikaztegieta klixen guztiak astindu zituen musika talde boteretsu bat sortu zela. Herriko plazan Sanlorentzotan kontzertu epikoa jo zutela, kanpoko milaka lagun etorri zirela, eta herritarrei dezibelio bakoitzarekin gorputzeko bilo guztiak aztoratzen zitzaizkiela. Gizarte fenomeno bilakatuta, Ikaztegieta mapan jarri eta kanpoko kazetari pila agertzen hasi zirela kaleetan aurkitzen zuten jendeari rock taldeari buruz galdezka, baita atzerrikoak ere... Arrakastarekin batera agertuko ziren drogak ziurrenik, eta taldeko kideen arteko ezinikusiak ere, nahiz elkarrekin eutsi taldearen arrakastari segida emateko... Ez, argi dago ez dela hori gure istorioa. Hasieratik esan dugu ez dela eta ez da.

Askoz errazagoa zatekeen rock banda baten historia kontatzea eta askoz errazagoa zatekeen ere Ikaztegieta bezalako herri batentzat “musika talde bat besterik ez” izatea gertatutakoa. Hemen kontatuko denak astindu askoz handiagoa eragin baitzien halako herri txiki bateko biztanleei. Ikaztegieta herri bukolikoa ez izan arren ere. Herrian hamaika ikusitakoak izanagatik ere.

Orduan zergatik analogia hori? Ez dakit, egia esan, baina irudi oso argia etorri zait, jarrera kontuagatik agian: “Mundu berri bat daramagu bihotzean” esaten dugulako geuk ere, eta munduari jakinarazi nahi diogulako, baina egunerokoan... Kapitalismo basatiaren kontra hitz egiten dugunean, zer proposatzen dugu trukean?... Eta rock talde batek himno eder batzuen bidez pertsonen arimak salbatuko dituen bezala (gauez gehienetan, eguneko tentsioak askatuz), askatasunaren bertsio argitsuagoak bilatzen ditugulako geuk ere, bertsio akustikoak eta elektrikoak...

Orain rock musika jartzerik ez dizut iradokiko, irakurtzeko musikarik egokiena ez baita, egia esan. Zinez, testuaren beraren musikaltasuna harrapatzeko, nekez lagunduko digu kanpotik beste doinu bat jasotzen egoteak. Bi musika aldi berean aditzea nahiko jasanezina da, txosnetan zein etxean. Bai iradokiko dizut, ordea, kontzertu batera zoazen jarrerarekin etortzeko testura. Pertsonaien zerrenda = kontzertuko *setlista*.

Hau ez da maitasunezko kanta bat ere, halakorik posible bada. *Love is in the air*, baita Ikaztegieta ere, ikusi ez arren. Hala ere, maitasun istoriorik atzean ez balego ez nukeen lerro bakar bat ere idazteko kemenik. Maite ditut gizakiak natura maite dudan bezainbeste, eta maite ditut bizimodu berriak asmatu nahi dituzten gizataldeak gizarte patriarkal eta indibidualista

honek nazka aurpegia eragiten didan heinean. Finean, fabula politikoa izan nahi du ipuin honek, halakorik gaurko irakurleak oraindik onartzerik balu.

Drogatuko naiz, beste leku batera abiatzeko eta zuok eskutik eramateko lurraren dantza egitera, irtenbideen gose baikara honez gero, ikatza bezalako labezomorroak isurtzen hasi baitzen aspaldi gure europar bizimodu kolonialista. Dena eskura dugu, adimen artifizialak benetakotasunaren ertzak ere lausotu ditu, laino koloretsu usain gozoko honetan bizi gara eta ez dakigu irteten. Ondo entretenituta gaude, nekea, porrota edo bakardadea estaltzeko. Zerbait egin beharra dago. Baina isilduko naiz, eta ikaztegiatarrei emango diet hitza. Ireki zentzumenak. Dena fikzioa da hemen, erreala dena salbu.

One...

Two...

Three...

Four!

I

MIREN:

Ailatu zien egune earki goatzet. Etxe hortan aspaldin mugimendu gutxi eon zan. Gizon bat bakarrik bizi zan, geo residentzira eraman zuten ta hortik berehala hil zan. Handik gutxira etorri zien hok. Etzeon inor kalen eta lenengok ailegatutakon balkoitik ikusi nitun: bi furgonetatan etorri zien, herritik buelta batzuk eman ta geo etxe horren aurren aparkau zuen, eta zazpi bat lagun jetxi zien, itxura berezikin, bastante modernok esango nuke. Etxea sartu zien eta traster deskargatzen eman zuten atsaldea. Jende majoa emate zun, pozik zeudela behintzat emate zun. Bestek hurrengo astetan etorri zien, umekin. Igual beste leku baten lasaiago eongo zien, mendi punta baten edo, baino justu hortxe zeuden, erdi-erdin. Han gertatzen zienak askon bistan ta denon ahotan eote zien gero. Lehen egunen ja aittu nun danbor hotsa jotzen ai ziela iluntzen, bere jardinen. Ez zien gerrarako danborrak, xuabe jotzen zuten, kantatzen ere hasi zien, polit eta ondo, baino berehala antzeman nion ez zala erraza izango, tomatea eongo zala.

AINHOA:

Gure herrian munduko leku askotatik etorritako jendea daukagu, lehen Euskal Herriko herri txikiak euskaldun eta trinkoak ziren, nekazal girokoak, baina orain beste gauza bat da. Goierri aldean aspaldian daukagu industria eta horrek beti ekartzen du kanpoko jendea, baita trenea herriaren erdi-erditik pasatzeak ere. Pasatzeak eta gelditzeak. Eta jende berria hemen jaisteak, inoiz herri honetaz hitzik ere entzun ez dutenak. Jende asko dira eta lan pila egiten dugu kanpotik etorritako pertsona horiek gure artean integratzeko, beti ere haien jatorria aintzat hartuz, beraien kultura ulertuz. Familia hauek euskalduntzea adibidez erronka handia da guretzat, euskararen etorkizuna hortik ere bermatu beharko genukeelako.

Kasu hau desberdina da, ordea. Hona elkarrekin etorri dira, euskaldunak dira eta hala ere beste moduko bizimodu batean bizi dira. Ez dakit gu baino modernoagoak ala zaharkituagoak diren, baina beste bira batean bizi direla argi dago. Bizkaitarrak direlako akaso. Aber, txorrada bat dirudi agian, baina agian ez da: nola integratzen da hori?

JOXEMIEL:

Jipik esistitzen zienik ez nekian nik! Eta hara, justo etxaurrea etorri behar jende hau... Normalen herrin ez dek ezer gertatzen. Asteartea dek ta ez dek ezer gertatzen ari, oso gauza txikik, bakoitza bere gauzetan zebilek. Lanen edo etxen sartuta, ez zekit. Larunbata bada igual-igual, gutxi batzuk ostatun baino gehienak bere gauzetan... telebista ikusten eo bazkarie prestatzen eo gimnasion... kalen etzeok ezer. Baino hokin ez. Hok etorri zienetik bakik beti zerbait gertatzen ai dala. Batzutan musika aitzen dala, bestetan parrak eta jolasak, edo talde lanak... hok udalekutan bezela bizi dituduk. Eta hoi, egie esatea nahi baek, insoportablea dek. Gure bizimodu aspergarrin ohituta gerek, eta oain eun batetik bestea hau aurren eukitzea supizio bat dek, supizio bat. Ze eredu emango dieu gure umei? Hala bizitzea daola ikusten badue... ze jungo dituk geo unibersidadea ikastea o taller industrial baten lanea zortzi orduz?

LURDES:

Niri umeen kontuak kezkatzen dit. Ze nire semeek ez dute inoiz eskolara joan nahi izan, ez dakit zergatik baina hala da, eskola gorroto dute. Kontua da ezinbestekotzat gurela orain arte: ez zaigu gustatzen baina denok joaten gara. Gu lanera bezala, gure bizimodua halakoa da, gustatu ala ez, ezta? Eztaba daezina da. Zer gertatzen da ume hauek herrira ailegatzen direnean? Ez direla eskolara joaten. Han ibiltzen dira beren taldeko jendearekin, gauzak eginean ikasten, bati ala besteari laguntzen, edo beren lanak eta jolasak egiten. Eta nire semeek hori ikusi egiten dute. Eta haienezako erreferente bat bihurtzen ari da, posible dela eskolara ez joatea, horrela haztea. Goizero kalakan aritzen zaizkit orain. Jende honek esaten du umeak ez direla gurasoarenak, tribuarenak baizik. Niri hori oso utopikoa egiten zait, polita da baina ez da errealia. Eta hala jokatzeko dute, denen artean zaintzen dituzte, denek zaintzen dute elkar, eta egia aitortu behar badut oso ume zoriontsuak ematen dute... eta azkarrak! Baina ezin da horrela bizi, ez?

XABIER:

Eskolako leihotik haiei begira egoten ginen. Ume horiek ez ziren eskolara gurekin etortzen. Jolasten ibiltzen ziren egun osoan. Irakurtzen ere bai, liburuak irakurtzen askotan ikusten genituen, edo helduekin batera, batak besteei liburutik irakurtzen. Batez ere jolasten, helduekin

batera ere bai. Eta gu inbidiatan. Ze guk... Matematikak. Ingelesa. Gizarte. Euskara... Etxerako lanak... Azterketak... Eta haiek jolasten egun osoan. Ze injustua, ez?

Haiengana joan ginen, jakin-min handiegia genuen. Etxean ezer esan gabe, noski. Hasieran pixka bat kostatu zitzaigun, baina ondo hartu gintuzten eta segituan jarri ginen haiekin jolasten. Herrian jada dena oso ezaguna genuen eta han dena zen berria. Han inork ez zigun esaten *Kontuuuz, min hartuko dezulaaaa!* edo *Bustiko zezaaaa!* Denetan jolasten genuen eta arropak zikinduta bueltatzen ginen askotan etxera. Amak harrituta begiratzen zidan, nik uste susmoren bat bazuela, baina ez zidan ezer esaten.

Gero egun batean zuzenean galdetu zidan ea Jende Berriarekin ibiltzen ote ginen. Eta galderak egin zizkidan, galdera asko, baina ez zidan errietary egin.

TERE:

Nik pegaik ez dauket. Hok etxe bat heredau ditek, eta hor jarri dittuk bizitzen. Nei haien arten bikotek dien edo ez dien, sexu librea edo polimaitasuna praktikatzen dien.. Nei ze ajola! Batzuei horrek igual inbidi pixkat ematen ziek. Nahiko likek herriko baten batek hola ibiltzea're. Batek baino gehiok. Nik ez. Bueno, probau beharko nike.

Oso kariñosok diela fijau naiz, bai, besarkada estuk ematen dituen hoitakok, eta saludatzeko pikok ahuan, denek, baita mutilek ere. Hoi, klaro, holako herri txiki baten fuertea dek... Hemen burukin saldatzen deu eta *Eunon* ta *Gero arte* ta hola. Pikokin saldatzea jendea hiritara jutea: Bilboa, Bartzelona, Berlinea... Hemen raroa da. Probokazioa.

Oain, inflexio puntua Malenena gertau zanen izan zan netzako. Ze gauza bat da beste ohitura batzuk izatea, bakoitzak nahi duna itea dauke, legen barrun bada, eta beste bat herriko neska gazte bat beaiekin bizitzea jutea. Hoi askok ez zun ondo hartu, bere gurasotatik hasita, klaro, baino herrin ere...

MAIKEL:

Tak-tak-tak. Urritza makiletarako, pagoa mahai eta aukietarako, gaztainondoa eskaileratarako... baina gereziendoaren egurra zuen Gabriel arotzak gogokoen. Puska majo bat prestatu zuen egun batez, laukizuzen tankeraduna, eta mahaigainean kokatu zuen. Haren gainean makurtuta aritu

zen mailuz, zizel eta gubiaz tak-tak-tak goizero. Etxeko okila izan zen egun batzuetan. Langile bat tarte luze batean etxe berean lanean ari denean kolpeen zarata oso gogorra izan daiteke auzokideentzat, baina Gabrielelek arte itzela zuen, bere erritmoak ez zuen inor nekatzen, bera hortxe ttak-ttak-ttak eta besteentzat kilkerra, txitxarra edo okila entzutea bezalakoa zen. Norbait tinbala jotzen hasten baldin bazen, beraien erritmoak bateratu egingo ziren, eta bazitekeen norbait txirula txiki bat jotzen hastea erritmo horretan, doinua emanaz.

Horrela kontatuta badirudi asmatzen ari naizela, baten batek pentsatuko du obratako zaratarekin ere musika egiteko gai zirela izaki miresgarri hauek, baina zin dagit hala gertatzen zela. Tak-tak-tak, etxearen taupada. Nire belarriekin entzun eta begiekin ikusi nuen. Justu parean bizi naiz ni eta jakin-mina ematen zidan arotzak, zertan arituko ote zen tailertxo horretan bere lanean hain gogobildurik.

Halako batean bere lana amaitutzat eman zuen, olio naturalen bat igurtzi zion gainetik eta etxeko umeek lagunduta sarrerako langan eskegi zuen zurezko letra dotoreak dauzkan kartel hori, behin ikusita denok gogoan daukaguna, bere mezu argiarekin: ATIZABALIK. Ate irekia alegia. Horrek dena aldatzen baitzuen. Atea irekita dago beti etxe hartan, hala da, bai, eta denda bat izan gabe, taberna bat izan gabe, zerbitzu publiko bat izan gabe, beste gauza bat baizik, beste egoteko modu bat ekartzen duena munduko parte honetara. Pixkanaka lotsak kendu eta hurbiltzen joan nintzen, udaberriko festara joatekotan izan nintzen.

PAKO BELEA:

Kiuu, kiuu! Lagun berriak etorri zaizkigu herrira! Kiuu, kiuu! Pakooo! Amaa! Hauek ere galleta ematen didate goizetan. Iuuu, iuuu, iuuu! Albiste pozgarria! Ume hauekin jolastera noa! Ta katuekin! Miauuuu! Ta ahuntzekin! Meee! Ta oiloekin! Kakara, kakara! Kiuu, kiuu!

AITZIBER:

Aber, nere ustez grazi pixkat ekarri due herria. Herri txikik beti izan ahal die itogarrik, bakizu, gaztetan normalena, gazte normal batek ospa iteko beharra euki behar du. Bestela zaila da zure bidea itea bizitzan. Dena da gertukogie hemen, izkutalekuk bilatzeituzu beti, txikitatik, atzekaldetan ta hola, baino momentu baten *yasta*, atea beharra daukezu, ez estankatzeko. Eta

derrepente hok azaltzea ba seinale muko bat izan da, o izatea dauke, hemen ere gauz diferentek gertatzea daukeala. Ez daola zertan Donostia o Bilboa jun segun ze gauza iteko. Ta hoi handie da. Normala iruitzetza batzui onartzea kostatzea. Normalen etortzen dien kanpotarrak, sahararrak adibidez, edo latinok, edo ekialdeko Europakok eta hola ez die izaten hain inbasibok, beaien mundutxon gelditzeie. Hau zentzu hortan izan da irrupzio bat nahiko alobestia. Eta bai, batzui kosta zaie, normala. Nei gustatu zait. Batzutan jute naiz beaien gauzeta, oso energia guaia daukea. Temazkalen eon nitzen aurrekon, eta festan baten ere eon naiz. Auzolanetan ebai... Lagunek dittut.

Baino klaro, han gertatzenak eztao bere hortan herrin kontatzeik... Beste hizkuntza batzuk die... Temazkala ezta sauna bat bakarrik, oso errituala da, sinistu beharra daukezu, pixkat behintzat. Han hil ite zea eta gero berriro jaio, garbittuta, purifikazio bat da, espirituala ta zentzu guztitan, ezta bakarrik izerdie botatzea. Amalurrakin konexio bat euki behar dezu, jende gehiena eztao holako zeremonia baten parte hartzeko puntun...

TXOMIN:

Nik eduki nuen behin liskar fuertetxo bat haietako batekin... Ostatura oinutsik etorri zen (*tio, ze nazka!*) eta zeozer esan nion, igual zerbeza batzuk hartuta nengoen eta ez nintzen egon oso xuxen, baina... Kasu handirik ez zidan egin eta ni horrek sutan jartzen nau. Bultza egin nion, eta joan egin zen. Ez nago harro egindakoz, baina nerbioso jartzen nau hauen egoteko moduak.

LOAREN ZAINDARIA:

Orrazia dut lagun, eta gauero lan handia dut asaldatuta daudenen ikusmirak orrazten. Espero ez dituzten ametsak etortzen zaizkie, iluntasunetik datozenak, aintzat hartu beharko lituzketen kontuak azaltzera, irudi desatseginak ekartzera, eta ametsen aztiekin hitz egiten dut nik, euskara batuan, negoziatzen, leuntzen, orrazia pasa eta pasa.

Ifrentzu guztien ama naiz, espiritu handien taldekoa...

Alterazio larriak sumatu nituen azken boladan Ikaztegieta aldean. Modu ikusezin batean dardara batean jarri ziren marmolezko pentsamolde batzuk, eztabaida mamitsuak gertatu ziren afalorduetan, zalantzak etorri ziren oinarrietara...

DULTZE:

Ni, sentikorra izateagatik, edertasuna bilatzeagatik, arrotza naiz nire herrian. Edo kuirregia izateagatik. Oldarkorak zaizkio ostatuko elkarriketa ozenak arima hauskorrari, eskafandra desberdina etorri zitzaidan jaiotzerakoan niri. Etsipen kapak onartzen joan nintzen urteak aurrera ahala, ohitu behar izan nuen etxean telebista hogeita lau orduz piztuta entzuten, amak eta aitak Teleberriko albisteez hitz egiten, inoiz ez elkarri samurtasun keinuak egiten, etxean sentimendu eta emozioez inoiz ez hitzik egiten, aldameneko gizona (Patxi) galtzaileen mozkorraldian behin eta berriro ikusten, aita egunero-egunero lanetik oso nekatuta ailegatzen, inoiz etxeko inorekin jolastu ahal ez izaten, kanpora joaten bere sentimendu eta emozioak norbaitekin partekatu ahal izateko ulermen pittin batekin...

Ikastera, bolada batez alde egin nuen etxetik. Baina Bilbon hainbat urtez bizi izan eta gero gurasoenera itzuli behar izan nuen, etxean laguntza behar zutelako amonarekin, eta artista naizenez anai-arreba guztietan “denbora libre” gehien omen neukalako... Eta zer da ba denbora librea? galdetzen dio bere buruari arima hauskorak... Gustatzen ez zaizkizun gauzak egiten amaitutakoan geratzen den hori da, ezta? Zertan “gastatu” nahi duzu zure denbora librea? Hogeita lau orduz sentikorra bazara, hogeita lau orduz astean zazpi egunez sortzailea, bizitzari kontakizun eta emozio berriak ateratzen iaioa. Espezimen arraroa naiz, bai, halako herri txiki batean, nahiz Ikaztegieta nahiko herri irekia izan.

Komunitateaz galdetu didazu? Komunitateak segurtasuna ematen dio gizakiari eta horren trukean askatasuna mugatzen dio. Baumanen liburu batean irakurri nuen bi horien arteko oreka batean datzala gizakien bizimodua. Eta komunitate bakoitza bakarra dela, ikusezina askotan, arautuago edo arau gutxikoak...

Eskailera berean bizi garenak komunitate bat gara.

Herri bat bertan erroldatuen komunitate bat da.

Manifestazio bat komunitate efimero bat da.

Herriko futbol taldea komunitate bat da.

Musika edo antzerki talde bat komunitate linguistiko eta emozionala da.

Nagusientzako memoria tailerra komunitate bat da.

Sahara urrunetik Ikaztegieta etorritako pertsonak komunitate bat osatzen dute. Haien seme-alabek herriko familien seme-alabekin jolasten dute eta beste komunitate bat osatzen dute. Atzealdean, eraikin handien atzean dauden patioetan. Ikaztegieta Otxarkoaga esaten diot nik. Gustatzen zaigu haiek elkarrekin jolasten ikustea. Komunitate hibrido horretan sinisten dugu, nahiz guri Saharatik ume horien gurasoekin harremanik txikiak egitea ere itzel kostatzen zaigun. Adeitsuak bagara, baina ez enpatikoak.

Gonbidatzen bagaituzte egun batean haien etxe barrura sartzen elkarrekin tea hartzera, joango gara? Ala lanpetuegi gaudela argudiatuko dugu, jauzi emozional hori ez egiteko nagiaz? Eta bere herriko beste berrehun etorriko balira eta euskara adina entzuten hasiko bagina haien hizkuntza gure herriko kaleetan, ikasiko al genuke arabiera gu ere haien aldera pittin bat bada ere hurreratzeko?

Zein ote da nire komunitatea! Gauza bat argi daukat: maitasuna da bide bakarra.

CONSTANTIN:

Esta gente son majos y muy espirituales... hasta que dejan de serlo. En eso, como todos. Quieren traer unos esquemas de vida diferentes y no tengo nada claro que eso sea posible en esta sociedad. Somos consumistas, capitalistas, individualistas, sí... Es así, no sé quién lo ve como un insulto. Somos así. Todos queremos los lujos, vivir bien, en familia...{}

MALEN:

Bizitza ezta txorakerie. Bizi beharko genuke diktadura batek debekatzeko muko modun baten, baino gure bizimoduk oso homologablek die diktadura batekin... Gauz asko esan behar diela iruditze zait, ze iruitze zait bizi geala *sinmás*. Onartzen ai geala kapitalismon diktadura, gure konfort mundu hau, nahiz bizitza prekariok daukeun egitan, baino geo pentsatze deula kristonak geala: ezkertiarak, modernok, aurrerakoiak, feministak, ezta kitzerenabangoardiakulturala, indigenistak... Ta hoi ja eztaukeula Gora ETA esateik, ze lehen amorru buila horrek, militantzia horrek deneako balio zula iruitze zait, automatikamente *outsider* leku bat emate zigula, gustatze etzaigun guzti horren kontrako borroka hoi, nolabait, mugaino eamanda.

Baino gustatze etzaigun guzti horren aurren, txorakerie eztan asunto nazionala proiektu egitan ilusionagarri bat sortzeko gai ez bagea... Ordun ze? Ezin badeu libre in dantza, jolastu, maitasune lasaitasunez publikoki eakutsi... kontu korrontei beida bizi bagea... Ordun gure amets ahaztun kajoi hortan zer zeon? Protestan bizi gea, ta hoi re ezta. Utzi ja marmarra ta proposatu beste zeoze polittagoa, joe! Ze gizarte klase asmatzeko gai izan gintezke? Ta ze ba ezteu iten!

AMIRA:

Elkarbizitzaren alde gaude gu beti. Jainkoaren izenean, klemente, errukiorra bera, bakoitza berean eta guztiok elkarri lagunduz. Guk gure bizitza egiten dugu eta herriko jendeak berea, ez dago trabarik. Umeak eskolara doaz eta tarteka euskarazko hitz batzuk erakusten dizkigute. Bederatzi urte daramagu Ikaztegietan eta lagunik ez daukagu herrikoen artean, baina zerbait gertatzen bazaigu lagunduko digutela badakigu. Besteek etxe barruan zer egingo ote duten ez da nire arazoa. As-salamu alaikum. Bakea zurekin izan bedi.

NEREA:

Ez dira gu baino hobeak, ezta modernoagoak ere. Egia da hauek oso galdera deserosoak ekarri zizkigutela. Haiek aurrean edukitzea, ikusiz bizi daitekeela lanaren esklabo izan gabe, beste modu lasaiago batean, etxeko ateak irekita, gauza txikiez gozatuz, estresik batere gabe, agendarik gabe, elkarrekiko maitasun ageriko horretan... Ez dakit nola esan, fuerteegia egin zitzaigun. Guk festetan justu-justu lortzen dugun hori... eta haiek egunero! Urduritasun pixka bat ekarri ziguten, gure bizimodua zalantzan jartzeko etorri izan balira bezala. Lasaiago gaude orain, egia da.

DULTZE:

Gaur egun, infrakomunitateak nagusi:

Sare sozialak = markak.

Lehen Colacao ala Nesquik baginen, orain Netflix ala Filmin, Insta ala Face, ETB ala Tele5.

Zure bizitza zenbat aldatzeko prest zaude zoriontsuago bizitzeko? Eskatu hiru gauza aldatuko zenituzkeenak modu holistiko batean: Maitasuna, Sexua, Lasaitasuna, Dirua, Osasuna, Umorea, Natura, Askatasuna, Jolasa, Segurtasuna.

Osotasunez bizitzea zer izango litzateke zuretzat?

Konektatuta egotea zer da zuretzat? Zeri konektatuta?

Pertsona bakoitzak energia desberdinak mugitzen dituela uste duzu?

Naturaren parte sentitzen zara? Zein lekutan kokatzen duzu zeure burua?

Zure gorputzari kasu egiten diozu?

Atea beti zabalik zeukan etxe hartan ezagutu nuen leku marabiloso bat, meditatzeke, besterik gabe egoteko edo dena delakoa: Isiltasuna Entzuteko Kupula (norbaitek arkatx batekin “u” bat biribildu eta “kopula” bilakatu zuena :-). Ikaztegieta herri-zaratak-zeharkatua delako, zaratak zartakatua, errepideak, trenbidea, fabrikak, desbrozadorak... isiltasuna uko eginaren eginez kontzeptu abstraktu ahanzia da. Halakoa da gure progresoa. Zaratatsua. Zikina. Gorputza uzkurrazten diguten gauzen zerrendatik ateratakoa. Txoriek ozenago egin behar dute txio, aditu ditzagun, gogora dezagun nor garen ere beste alde horretan. Ikaztegietan bele batek hitz

egiten ikasi zuen behin, baina zozo bat ahotsik gabe geratu zen iluntzeko *mercanciasa* pasatzen zen ordu berean nahi izan zituelako gauza eder eta beraz inportante batzuk kantatu.

MARTIN:

Niri zail samarra egiten zitzaidan erreferente hori mutur aurrean edukitzea. Nire pozak oso txikiak zirela ikusarazten zidaten eta ez nintzen gai hortik ateratzeko. Bizimodu ximplea daukagu eta ondo dago hori ere, ez?

Gogoratzen naiz udaberri-festa egin zutenean kartelak jarri zituztela herrian zehar eta askok esan genuen ba bueno, aukera bat izan zitekeela ere haiek ezagutzeko, ikusteko ea benetan han ze gertatzen zen. Igual oso sanoa ere ez zen gure abiapuntua baina tira, jakin-minez joan ginen. Hara ailegatu eta alkoholik gabeko festa bat zela ikusi genuenean... Enfin. Herrian, drogazale kuadrilla bat zirela esaten zen ordurako, eta brebajeren bat probatzea espero genuen, baina han ez zegoen inolako sustantzia pizgarririk: soilik eguzkiaren argia (hori esaten zuten, bai!), kantuak eta dantzak. Segituan aspertu nintzen! Ostatura joan eta gintonik bat eskatu nuen, kabreatuta nengoen. Beraiekin? Nire buruarekin? Ez dakit.

MARICARMEN:

Bueno, netzako nahiko jende astuna die. Herritik ere ibiltzeie ta ikusteittut umeei re nola hitzeitten dien... Botagurea ematen diate, hainbeste ulermen ta hainbeste energia ta konexio ta espiritualidade. Eztet bate sinisten *new age* hoitan. Asteburu baten topaketa tantriko bat ez zuten ba antolatu hemen Ikaztegieta! Kartelak jarri zittuen herrin ere... Nola zan? "*Presentzia eta konexiorako espazioa* (Bai, bai: '*espazioa*') *bihotzean bizitzeko*"...edo holako zeoze... Bee! Gauza bat esateizut: ezetz asko iraun. Hok ingoue hilabete batzuk hola ta seittun aspertuko die. Hirira bueltauko die segittun! Ikusiko dezu. Dena postureoa da. Ikaztegieta ez dala Ibiza!

ORAINDIK JAIO EZ DEN UMETXO IKAZTEGIETAR BAT:

Herri polita da Ikaztegieta. Istorio bitxiak kontatzen dira hemen.

Antzina, Madrilgo tren batek hemen aberia izan omen zuen eta pasajero batzuk, ez aurrera eta ez atzera, eta bertan geratu zirela bizitzen. Madril Txiki horregatik deitzen omen diote Ikaztegieta, umeen aldizkaria bezala. Baina inork ez du ezagutzen jatorri madrildarreko inor hemen.

Gero, gizon batek sendatu zuen belearena, istorio bitxi hori, liburuetan ere dagoena, Pako Belea, txoriak hitzak esaten ikasi zuela eta herrian zehar zirikatzen ibiltzen omen zela jendeari.

Edo nola festetan limusina zuri luuuz bat agertu zela gau batez, eta barruan kilkerak entzuten zirela etengabe.

Edo herrira etorri ziren ile luzeko kanpotar horien istorioa, herriari hainbat ekarpen egin zizkietenak, hala nola, tomate eta babarrun hazi mota berriak edota herritarren heriotzak

ospatzeko modu berri polita, besteak beste. Baita abesti hau ere, geroztik askotan elkarrekin kantatzen duguna:

Amuma Ure

eskerrak emon, eskerrak emon

bihotza zabaltzigaittik osasunera, maittasunera

Aittitte Airie

eskerrak emon, eskerrak emon

bihotza zabaltzigaittik osasunera, maittasunera

Amuma Lurre

eskerrak emon, eskerrak emon

bihotza zabaltzigaittik osasunera, maittasunera

Aittitte Sue

eskerrak emon, eskerrak emon

bihotza zabaltzigaittik osasunera, maittasunera

JOSUNE:

Ez nuen espero halako bukaera bat. Pentsa nezakeen etxeko atea azkenean itxi egingo zutela, edo poliziak handik aterako zituela halako batean ilegalki okupatu zutelako, edo beren kasa joango zirela herri honekin aspertuta edo haien arteko gatazkengatik... baina gertatu zena... hori uste dut ez zuela inork espero. 2025etik aurrera itzalaldiak geroz eta maizago gertatzen hasi ziren eta hor gauzak mugitu egin ziren herrian. Gero etorriko ziren ere Bigarren eta Hirugarren Mundu Pandemiak ere. Pixkanaka elkarren arteko zaintzak berebiziko garrantzia hartu zuen.

AITZIBER:

Gaianeko hoi galdetzen diate ta bai, ni ikertzen ibili naiz *Gaia Teorian* kontu hoi. Gaia, hasteko, Lurraren jainkosa izantzan Grezia klasikon. Geo, xx. menden, atmosferan konposizio kimikoa aztertu zuten, James Lovelock zientzialarik hainbat aurkikuntza egin eta, Lynn Margulis mikrobiologokin batea, hipotesi bat garatu zuen, lurreko biosfera guztie sistema auto-antolatua dala esaten duna.

Horrek ze esan nahi dun? Gure historian aurreneko aldiz, gure planeta osotasun gisa, organismo bat bezela ezautu dezakeula. Ta horrekin batera uler dezakeu, beraz, gu gizakiok ez geala subirano pribilegiatuk planeta hontan... baizik eta osotasun horren zati bat bakarrik, ezta ezinbesteko bat ere. Hau da: zerbait haundiagoren parte geala. Erlijioak esateuten gauze bera da

hoire, azkenfinen, ezta? Hoi sentitzea oso fuertea da... Honek gainea zientzia eta espiritualtasuna behingoz elkartu iten dittu...

...Eta horren haritik hartu zun izen hori hain zuzen ikaztegiara etorritako komunitate horrek: GAIAN. Nik horrekin konektatu iten det, egie esan. Naturarekin konektatzea, parte sentitzea, egunero iteko kontua dala esango nuke, Gaianeko hauek egiten duten bezela. Horrek ez dauke bate zerikusik mendira korrika igotzeakin. Hortan baskoen estereotipok konfundituta daudela esango nuke, kar-kar-kar. Ze... euskaldun izateko modu diferentek egon daitezke edo euskaldun izateko modu bakarra dao kulturalki (eta erlijiosoki, esango nuke) zeharo markatuta egon behar duna?

NEREA:

Sexualitateaz hitz egiteak, presente egotea, nolabait, egunerokoan, horrek flipatu ninduen gehien hauekin... Naturaltasunez, ez morboz. Norbere esperientziaz hitz egitea, taburik gabe. Eta elkar ukitzea normaltasunez, eskutik heltzea, besarkada luzeak... Kariñoak. Hori egin zitzaidan niri oso txokantea. Sexualitate sakratuaz hitz egitea. Daukan berezko leku zentrala ematea horri, hain ezkutuan edukitzen ohituta gauden horri. Horretan badugu zer ikasi... eta nik nahi dut!

MARIANTTONI:

Nik asko ez dakit hontaz baina gauza batzuk bai kontau dizkiate ilobek eta. Nik uste jende zintzoa eta prestua dala, elkarrekin gauzak egiteak oso ondo hitzegiten du beraietaz. Moralidade kontuetan ez naiz sartuko, ze hor seguru oso ados ez garela. Pekatuan bizi direla ere esan didate... Baina hori oso normala da, ez? Nik gaurko mundua ez det ezer entenditzen, denak etxen sartuta eta telefonoakin eztakitzeretan, baina gure garaian, garai zailak zirenean, orduan etxe guztietako ateak irekita izaten zien ta elkar laguntzen ibiltzen ginen, batek hau behar zula ta bestek hura ta... hor ibiltzen ginen. Hoi hola da.

MALEN:

Gustauko zitzaiten jakitea herrin zenbat jende amesten dittun bizitzeko modu diferentek, berrik. Daukeun honek eztigulako funtzionatzen askotan. Gehiegitan. Eta Gaianeko hok ispilu earra jarri digue aurren. Dultzekin askotan aitu izan ginen hitzeiten eta azkenen erabaki bat hartu genun.

JOKIN:

Etxea herentzian hartu zuten ala okupatu egin zuten? Eta hori benetan da hain inportantea? Halako leku garrantzitsua ematen diogu jabego pribatuari? Jabego pribatua pertsonen arteko ezberdintasun ekonomikoen bermea da. Denok dakigu diruaren eta ondasunen banaketa ez dela justua mundu honetan, baina bakoitzak berea salbatzen duen bitartean konformatu egiten gara, eta sistema hau betikotu egiten dugu. Guri tokatzen zaigun arte, Bertolt Brechtek (edo beste bat

izan al zen?) esaten zuen bezala: *Lehendabizi komunisten bila etorri ziren baina nola komunista ez naizen ez nuen ezer esan...* Hemen ere prekaritatearen marea horrelaxe igo zen, ezer egiten ez genuen bitartean, denok itota eduki arte. Lanak itota, diru arazoek itota. Itota baina entretenituta. Eta murrak eraikitzen, pobreek gurea honda ez dezaten... Munduaren hiru laurdenak pobrezia osoan bizi baitira eta gure tarta zatia, zatitxo defendatu behar... Orduan armadak... Enfin. Eta hippy trasnotxatu horiek bitartean hortxe, gure muturren aurrean, gure begietara oporretan bezala bizitzen, baina, klaro, garai aldaketak zetozen.

Desazkondeaz aspaldi hasi ginen entzuten, baina guri ez zitzaigula tokatuko edo, halaxe bizi izan gara, beste alde batera beti. Kolapsoa besteen kontuak bailiran. Bitartean gasoila eta beraz gauza guztien prezioak igo eta igo... Itzalaldiak noizbehinka, zer pentsa ematen dutenak... Eta beste hamaika arazo: uholdeak handik, suteak hortik, pandemiak hemendik... Beste aldi batera pasatuko garela argi dago, baina oso ekintza txikiak egin izan dira aldatzen joateko, eta beti diruaren interesak aurretik jarrita. Beste eredu baten bila ibili beharko genuke benetan...

KALEKO KATUA:

Jan eta lo. Bizitzaren zentzua hori da. Beti erne-erne nago, katutasunean inguruan dabiltzaneia adi, izan sagua, eulia, gizakia, zakurra edo armiarma. Jatekoa ehizatzea gustuko dut, edo bila ibiltzea, kaleko zabor-kutxetan usain goxoren bat dagoenean. Beste batzuetan plater batean jartzen didate zabalik dauden etxe batzuetan. Gizaki txikiek nirekin jolasten dute. Hori ere ondo dago. Laztandoak ere egiten dizkidate, eta nik zurrungan egiten dut. Bestela, lozorroan ematen dut egunaren zatirik handiena, baita gauaren zatirik handiena ere.

MALEN:

Ate magikoa da. Baina reala da. Denok daukeu ate batzuk. Batzutan irikita eoteie eta gehienetan itxita: Etxeko atea, kotxekoa, garagekoa, lantegikoa... Giltzatak haundi bat eukitzek boterea emateigu. Gaianekon etxe hortako atea beti irikita eotea seinale bat da. Netzat, denontzat. Ati zabalik, haik esateuen bezela. Ate-irekie, gure hizkeran. Estuasunak askatu esatea bezela, aukera guztik irikitzen die hemen. Zer daukeu galtzeko? Zeren beldur die gure etxeko atea beti itxita eukitzea obligatze gaituenak? Zerbait kenduko al digue ba? Min itea etorri behar al du norbaitek? Egitan? Alarma saltzaileentzat mezue: fartsante batzuk zeate! Konbentzitu digue gure esfortzuekin lortutakoa momentu baten galdu dezakeula, eta horren beldurrez bizi gea. Saldu in genitulako gure gogok, soldata baten truke.

Gaianekoen etxea sartzea esperientzi berri bat da. Ezta leku pribatu bat. Han barrun inoiz ezer txarrik gerta eztaitekeen sententzioa bizi daiteke. Zaurik osatzeko leku bat da e bai. Pertzepzion atek iriki zitzaizkiten nei.

Behelaldeko pixun gela komunek daude, sarrerak zapata guztik, eta txamarra ta txapelak, makilek... Aurreago sala haundi bat, sukalde haundi bati lotuta daona, jolas-gela ear bat eta kriston liburutegie. Jakinminez betetako hainbat pertsonen urtez urte bildutako liburu guztik

hartzeitu. Han aurkitu dezakezu ia eozar. Ezta Alexandriako liburutegia, munduko liburu guztiak biltzen zituna bere garaian, ezta Koldo Mitxelenako fondoa re. Baino bertan dauden liburu guztik daukea zer bait.

Etxen goxotasune da sartzeakon lehenengo arnasteana: airea bea aldatu itea, pisu gutxigo daukela emateu, han zaudela. Beti aurkituko zu norbait beheko gela hauetan, ta haien jarrera beti oso irekie da: ezer saldu nahi gabe hitzeiteizue. Anbizio pertsonalak ze oteien daukezu galdetzea zure burui.

Goiko bi pisutan gelak daude ta gelatako atek ere irikita eoteie normalen. Gure arteko errespetue ezta ate itxi batek eakusten.

Etxe inguruan beste edificzio batzuk daude: tailer bat, eozar eraiki ahal izateko edo konpontzeko; Isiltasuna Entzuteko Kupula deitzeien domo moduko edificzio bat ta beste hainbat txabola re bai, yurta bat... Oso lur zati haundie re eztauke inguruan baino oso ondo jarrita dao dena... Animalik dare kanpon: zaldi batzuk, ahuntzek, oilok, patok... Fruta arbolak, baso jangarrie, permakultura baratza... ta sun inguruan elkartzeko borobil haundi bat erdin.

Netzako tentazioa zan haikin jun ta bizimoduz aldatzea. Banekin etxen etzuela ondo hartuko baino nere norabidei aspaldi enion zentzuik hartzen ta aukera berri bezela ikusi nun. Bizitzak behazuna eskeintzeizu batzutan... Gaianekoi galdetu nien eta atea irikita daoela esan zitean zuzenen.

DULTZE:

Miseria espirituala zer den nola azaldu dakioke bere kabuz horretara ailegatu ez den pertsona bati? Zergatik daude “bukatu dira bromak”, “bizitza gauza serioa da”, edo “lan on bat bilatu behar duzu” bezalako lelo hain presenteak helduon bizitzetan? Zergatik maite ditugu oporrak hainbeste? Eta oporretan bezala bizitzerik bagenu? Baina ez lanaldi deitoragarriaren beste aldea bezala baizik bizi-kalitate berri baten izenean... Gutxiagorekin bizi segur aski, ez dugulako hainbeste gauza behar, oso gutxi behar dugu zoriontsu izateko, ohituta gaudenaz bestera. Gogoratzen zarete pantailatara pegatuta egoten ez ginenean? Hobeak al ziren telebista eta internet gure bizitzara sartu aurreko egunak?

Gure umeek amesten dituzten herrietan zentro komertzial erraldoiak agertzen dira, non dena gratis den. Hori horrela da eta alarmak piztu beharko lizkiguke baina dena irensten dugu, kapitalismoan hezi garelako, eta kapitalismoa da konpetitibitatea, da diru-gosea, da kontsumoa, da handinahia, kapitalismoa da ondokoa zapaltzea. Eta zapaldu ez gaitzaten atea ixten dugu. Ez etxekoa soilik. Bihotzekoa ere bai, eta gure gorputzarena ere bai, gaixotasunen bat ez dugun artean. Hori esan beharra neukan. Ze bizimodu klase da hau? Antsiolitikoak, antidepressiboak, lo egiteko pilulak... Zergatik izango ote da? Nik horrela ez dut nahi. Banoa beste zerbaiten bila.

AINHOA:

Malenek eta Dultzek muga bat pasatu zuten, argi dago, horrek dauzkan arrisku guztiekin. Besteok agian hartu-emanen bai baina ez ginen Gaianekoen zirkulura sartzen ausartu. Hibridazioa hemen herrian gutxi egin dugu, beti ere gurearen esentzia babesteko, ezta? Baina haiek beti izan dute beste puntutxo bat, eta halako sedukzio fuerte bat sentitu zuten komunitatera sartzeko. Atizabalik bai, baina haiek barruan zeuden, energiak mugitu ziren eta ulertzen dut familiari kortozirkuitua eragitea. Pasatzen ikusi nuen Joxan astelehen horretan eta izua eman zidan bere begiradak. Pasaeran agurtu nuen baina berak ez ninduen ikusi eta Gaianera egin zuen zuzen.

JOXAN:

Nere alaba da. Mundun gehien mattetena. Ta xiniste deun baliotan hezi deu etxen. Dena eman dieu beti. Bizkarra minberatu arte in deu lana familie aurrea ateatzeko beti... Gero beak unibertsitatea utzi ta ile luzeko hoikin jutea erabakitzeko... nere amesgaiztoik haundina da. Deskanso bat hartu beharraukela esan ziten, ez zekila bizitzan ze izan nahi dun, ez zekila ja zein dan e. Karrera bukatzeko erregutu nion baino kasoik ez. Burugogorra da, zerbait sartze zaionen kaskon. Enamoratu irribarre tonto batekin esan ziten adin nagusikoa dala ta jutea erabakita zeukela, uzteko paken. Ta ni astebete loik in gabe. Bueno, pastilakin azkenen zeoze bai.

Kontzientzia-egoera aztoratuan neoen Gaian Etxera jun nitzenen. Ni enintzen ni. Hoi esatea re... Hola da, hortako hartzeiteu botikak eta kubatak: ni ez izateko, o beste norbait izateko o auskalo, beste modu baten eon ahal izateko,itsu-bilaketa itsun. Eozer iteko prest neon, indartsu sartu nintzen etxea, airea kutxilokin mozten. Beheko gelatan ibili nintzen eroa bezela, enun nere Malen aurkitzen, ta etxekok kezkatuta beidatze zitean. Sukalden, goran zeola esan ziten azkenen soineko luze marraduna zeuken neska gazte musugorri batek. Belaunek huts iten hasi zitzaizkiten.

Gora igo ta soinui atento jarri nitzen. Nere alaban parra entzun nun, hainbeste matte deten par zoragarri hoi... eta harantza jo nun. Intsentsu usain sarkorra etorri zitzaiten sudurren barrena, ahotsak e entzun nitun, doinu jolastietan hizketan. Indiako musika sarkorran gainetik maitasun hitzek entzun nitun, netzako etzienak. Hitz polittek oso, netzat inoiz entzun enitunak. Ahots diferentek zien. Gela hartara sartu ta ohe oso haundi baten gainen neska-mutil batzuk ikusi nitun erdi larrubixik, dantzan bezela maindire arten korapilatuta. Haiek eninduen ikusi hasieran ta plazerretan segi zuen iji eta aja, zurrupadura, muxu ta laztan, harrituta beida ni. Halako baten, haien arten Dultze ezautu ta Malenengatik galdetu nion. Eztakit ze oihartzun in zun nere hitzak. Nere lekuz kanpoko ahotsak eszena osoa moztu zun ta beida geatu zitzaizkiten denak, bost o sei izango zien. Maindire azpitik Malenek burue atera ta harriduta beidatu zitenen gogortuta geatu nitzen. Eozer neuken itea. Baita norbait hil e igual. Neoni re igual bai. Hortxe, nere iluntasunen zoko izkutunetan ibili nitzen hitzik merezi eztuen sentsazion zurrumbilon, barne-leherketa bizin. Haik ondo zeuden, ni ez. Argie jun zitzaiten, argie jun zan.

KAIROS:

Aukera berrien aroa iritsi da:

Erdu iletik oratzera Cronos denbora linealari

hartu ondo arnasa

a r n a s a

heldu kontenplazioari osotasunean

bihotz-begiekin edertasuna bilatu eta sortzera.

JOKIN:

Horrelako historia batek bazirudien leherketa handi bat eskatzen zuela. Joxan egun horretan Gaianera sartzen ikusi zutenek horixe pentsatu zuten: nahiko ondo zihoan baina ezin zuen hala izan eta espero genuena iritsi zen, konfliktoa. Odola. Entregatutako dontzeilaren drama klasikoa, esan zuen poetak.

Baina ez zen krimenik egon, ez zuen Joxanek azkenean inor hil egun hartan. Aitzitik, urtu egin zen, eta bere burua eta baita besteenak ere zaintzen jakin izan zuen, edo hori besterik ezin izan zuen egin. Hasierako shocka pasatuta, Malenekin hizketan aritu omen zen tarte luze batean eta Gaian Etxekoekin infu bat hartzen bukatu zuen egun hura. Haiek jakin gabe, txikitik handira, gauza inportanteak gertatzen diren bezala, itxaropena emango digun irtenbideren bat eman ziguten aita-alabek egun hartan.

Anaitasuna posible dela eta beste modu batean bizi daitekeela, edo bizitzeko modu naturala beste nonbait dagoela, kapitalismotik kanpo bizi daitekeela oraindik. Izan, Ikaztegietako eta, esan dezagun, herri guztietako komunitate guztiak elkarrekin ikasten eta kantatzen biziraun dutela gaur arte, eta denek elkar elikatu eta babestu dutela ikaragarri...

Gero beste kontu asko gertatu ziren ere egoerari eragin ziotenak, baina horien epizentroa ez zegoen jada Ikaztegieta bezalako herri txikitxo batean, baizik leku urrun eta erabakiak-hartzen-diren-ezleku ilun horietan...

DULTZE:

Txikitatik ezagutzen dut Joxan, Malen lagun minaren aita izan da beti eta harreman ona izan dugu, txikitan harekin joaten ginen mendira askotan Txindokira, Erniora, Aralarrera, Aizkorrira, Udalaizera... Gerora bizitzak leku ezberdinetatik ekarri gaitu baina beti goxoa izan da gure artekoa, adeitsua behintzat, herrietako kariño xume horrekin bada ere. Baina inoiz ez nuen ikusi egun hartan bezala, normala denez. Bat-batean han aurrez aurre ikusi zuenak ez zeukan inolaz ere, nolabait esateko, gure euskal mendien ekosistema horretan lekurik.

Astakeriaren bat egin izan balu —eta gerta zitekeen— dena pikutara joango zen. Une hartan beldurak dena kutsatu zuen eta nik uste bera ere konturatu egin zela, eta hor geratu zen panpina bat bezala. Paretan bermatu zen bestela lurrera eroriko zelako. Malen eta biok berarengana hurbildu ginen, eta Malenek “Aita” esan eta sorbalda ukitu zionean negarrez hasi zen. Ez nuen inoiz lehenago Joxan negarrez ikusi eta ez nuen inoiz inor ikusi ere modu horretan malkotan, katarsi emozional moduko bat izan zuen. Ederra izan zen hortxe egotea bera laguntzen.

MALEN:

Beharrezkoa zan holako zerbait gertatzea aldaketa iteko. Gauzek beti gertatzeie behin aurreneko aldiz ta earra da, inportantek die aurreneko aldiz gertatzeien gauzek, aurreneko aldiz iteien gauzek, aurreneko aldiz ikusteien gauzek. Aurreneko aldiz entzuteien kantak, aurreneko aldiz entzuteien hizkuntzak... Kontserbadorei etzaizkie berrikuntzak gustatzen, nahiz haientzat mundue okerrea dijoan beti. Esperantza ta curiosidadea, gutxi batzun altxorra. Ongizate materialetik ongizate espiritualea pasatzea, hoi bai saltoa! Bizitzan alde iteko modue aurkitu genun, fede klase moduko bat, lurrei konektatuta, naturai, pertsonen bihotz ta azalai... Bularra hauspotu ziten guztiz aita hortan ere nere ondoan jartzek edo behintzat ni ulertzek.

LIBE:

Eskolatik atera eta Gaianera joatea ohitura bihurtu genuen. Han denetatik ikasten genuen, benetako gauzak: bizikleta konpontzen Iñakirekin, zaldiak zaintzen Rebekarekin, porruak edo piperrak landatzen Zesar eta Junerekin, sendabelarrak ezagutzen Angelarekin, gazta egiten Xalba

eta Xabirekin, perkusioa jotzen Itzirekin, dantza garaikideak egiten Eva eta Andresekin, kamisetak margotzen Mustafarekin, egurra lantzen Gabrielekin, ogia egiten Erikarekin... Primeran pasatzen genituen han arratsaldeak! Laster gurasoak ere gurekin etortzen hasi ziren, eta elkarrekin planak egiten ere hasi ginen.

IRATI:

Egia da hasiera batean ez zela erraza izan haiek ondoan izatea; ez bakarrik danbor hotsengatik, horretara ere ohitu ginen. Baina entzun nahi ez genituen hainbat gauza gogoratzen zizkigun haiek hemen egoteak, plazer-intziriak adibidez. Hori hemen ez zen noiztik entzuten! Baina bueno, oso eroso eta apal ginen gu gure konfortean. Lan baldintza duin batzuk lortuz gero beste guztia oso erraza zen gure bizimoduan... Gero itzalaldien kontua larritzen joan zen: elektrizitatea desagertutakoan ezagutzen dugun mundu hau guztia une batetik bestera aldatzen zen. Lehenengoak ordu batzuk iraun zituen eta tira. Baina geroz eta luzeagoak gertatu ziren. Gau batez ekaitz fuerte batekin kointziditu eta horrek dagoeneko apokalipsia ematen zuen. Denok etxean kandlekin tximistei begira, ezagutzen genuen munduak iraungo ote zuen jakin gabe...

Ordurako dieselaren prezioak hamar aldiz gora egin zuen eta horrek ere gauzak dexente aldatu zituen. Gero eta gauza gehiago bilakatu ziren luxu. Autokarabanak, dieselik gabe, merke alokatzen ziren apartamentuak bihurtu ziren... Aspaldian entzuten ari ginen sistema ekonomiko hau eutsiezina zela planetarentzat: lehengaien espoliazioa, kutsadura maila altuak, planetaren beroaldiaren efektuak, itsasoko uren pH aldaketa... Handik eta hemendik entzuten ziren ahotsak ziren. Baina politikoek kosmetika operazio batzuk egin, hiritarrok birziklapenera bultzatu eta horrekin jada beste alde batera begira jarrai genezakeen, neurri drastikoagorik gabe. Itzalaldiekin gauza serioagoa bihurtu zen, telekomunikazioen hiperkonektibitatearen sare hori guztia une batetik bestera desagertu egiten zelako.

Larrialdi handia sortu zen ekonomia eta politika alorretan, noski, dena gainbehera zetorren egun batetik bestera, mota guztietako grafika guztiak gorrian agertu ziren. Baina artean gu ez ginen askorik jabetzen. Deskonexioa erabatekoa izan zen. Geroz eta tren gutxiago pasatzen ziren herritik nabarmen. Nolabait gure arbasoen bizimodura itzuli ginen, halabeharrez. Dramatikoa izan zitekeen, baina atsedena izan zen guretzat behintzat, nahiz lan handiak genituen aurretik.

Lehengo garaietan azken mohikanoak ziren nekazari txikiek egun batetik bestera berebiziko balioa hartu zuten. Munduko jakintza guztia paperera itzuli zen, liburutegietara, eta batez ere pertsonen esperientziara eta jakintzara. Arreta eta memoria berreskuratu genituen. Ikaztegietako komunitatea, pertsonak, plazara atera ziren eta elkarrekin bilatu behar izan zituzten aurrera egiteko moduak, oinarritzko premiak asetzeko bideak.

Orduan bai, herriko etxe guztietako ateak ireki egin ziren elkar laguntzeko, komunitate-baratzeak egin ziren landa guztietan eta jendea egunerokoan elkartzen zen bazkaltzera etxeetan eta kaleetan, plazan, eta bazkal ostean elkarrekin kantatzera, dantzatzera, jolastera, maitatzera, poz berri bat ezagutzera. Rock talde potente bat ere sortu zen Ikaztegietan, Gaianeko eta herriko gazteak elkartuta, eta *unplugged* jo arren “kriston martxa dabil” aritu ginen denok Sanlorentzotan. Eta abar.

GAIA:

Azken hitza eman didate nahiz nik ez nuen nahi. Berez ez naiz inor, ez daukat nik hitzik. Esazu zerbait transzendental baina ez dadila igar, *esan didate. Eta nik, bai, klaro...* Eman bukaera eder eta biribil bat fabula politiko handinahi honi, txukuna eta poetikoa. *Bai, bai...* Zuk, gu guztiok ere zaren horrek, atera barrutik ahots eder bat etorkizunerako bidea argituko diguna 2025eko norabide okerreko gizakioi... *Bai, eta zer gehiago?*

Eta hala bazan edo ez bazan...

{ }* Jende hau jatorra eta oso espirituala da... izateari uzten dioten arte. Horretan, beste guztiak bezala. Bizi-eskema desberdinak ekarri nahi dituzte, eta ez daukat batere argi hori posible den gizarte honetan. Kontsumistak gara, kapitalistak, indibidualistak, bai... Hala da, eta ez dakit nork ikusten duen irain moduan. Horrelakoak gara. Denok nahi ditugu luxuak, ondo bizi, familian...